



3 GIZARTEA

Sindikatuak hilaren 26an greba egiteko deia luzatu dute

Irailaren 26an Greba Orokorreko deia egin dute euskal sindikatu nagusiek hainbat eragile sozialekin batera. ELA eta LAB sindikatuak egun horretan kalera ateratzeko arrazoiak azaldu zituzten eta Gobernuaren murrizketak salatzeaz gain, Euskal Herriari hitza eta erabakia aitortu behar zaizkiola nabarmendu zuten. Greba egunerako manifestazio deialdia egin zuten arratsaldeko 18:00etan, Lasarte-Orian.

4-5 ELKARRIZKETA

Nely Carla Alberto, brontzeko eskubaloia jokalaria

Poz handia hartu zuten herri-tarrek Nely Carlak Londreseko Olinpiar Jokoetatik bigarren domina herrira ekarri zuenean. Espainiako selezioarekin lortutako balentria ahaztuta, Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoak ditu jada buruan. Profesionalki, Lizarrako Itxako eta Normandiako Havre taldeetan aritu ostean, aurten Frantziako Fleury-n jokatuko du.



Gazte kontzertuak, bigarrenenez

Jalgin musika psikodelikoa eta Abend-en metal gaua ere izan ziren

Aste Santuan lehenengoz gazte kontzertuak antolatu ostean, Steps Coop. ikasle-empresako kide eta Mondragon Unibertsitatean diharduten Aigor Aizpuru eta Iñigo Arrietak bigarrenenez antolatu zituzten larunbat gauean gazte kontzertuak. Horretaz gain, ostiralean Jalgiko eskenatokian Glazz-ek jo zuen eta Abend-eko metal gauean Hell Damm eta Noxbleed izan ziren.

Musikarekin lotura estua izan du betidanik Lasarte-Oriak, eta izpiritu horrek bizi-bizirik dirauela frogatuta geratu da.

Psikodelia eta metala

Cádiz-etik gurera etorri zen Glazz taldea ostiralean, eta jazz, rock eta psikodelia estiloak landu zituzten Jalgin eskaini zuten kontzertu instrumental indartsuan.

Bestalde, metal-gaua egin zuten Abend-en, bertan Donostiatik gurera trash-metal basatia ekarri zuen Hell Damm taldea eta Zumaia, Abadiño eta Durangotik etorritako Noxbleed aritu ziren anplifikadorei su ematen.

Gazte kontzertuak

Hala ere, asteburuko musika ekitaldirik garrantzitsuena "Steep Coop." ikasle enpresako Arrieta eta Aizpuruk antolatutako kontzertuak izan ziren.

Guztira lau taldek jo zuten: herriko The Garax,



The Garax egur betean aritu zen eta Glazz-en musika psikodelikoak Jalgiko publikoa erakartzeaz gain, harrapatu ere egin zuen.

Usurbilgo Odolaren Mintzoa, Hernaniko Oi dek Oi eta Donostiako Besteik-pe aritu ziren egurrean Okendo plazan jarritako ohotzian.

Ikasleen helburua kontzertuak inguruko herrietako jendea erakarri eta plazako ertz batean jarritako barraren

bidez etekina ateratze zen.

Ikasitakoa praktikan jarritz

Arrietak azaldu digunez, Aste Santuko kontzertuekin alderatuta hobekuntza nabarmenak egin zituzten: "Aurrekoan gaizki egin genituen gauzak kontzertuak saiatu gara, taldeei

afaltzeko aukera eskaini diegu, tramiteak azkarrago egin ditugu eta gainera jende gehiago etorri da, azken finean horretan datza gure ikasketa-prozesuak."

Bestalde, eskerrak eman nahi izan dizkio Udalari kontzertuak antolatzerako orduan eskainitako erraztasunengatik.

ALBA

ARROPA DENDA

KOOKAI
NAFNAF
VERSE

**Etorri gure
Udazkenerako arropa
ikustera!**

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Bideo Lagunak



**SARTU ETA BEGIRATU
GURE ESKAINTZAK!**

10 hilabete interesik gabe

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Adituak dio

Talaiatik



Leire Garmendia

Okendo Zinema taldea

OKT zine mundua gustuko dugun lantalde txiki bat gara. Taldea irekia izanda, azken urteetan jendea joan etorrian ibili da baina momentuan talde finko bat garelako esan daiteke. Hilean behin edo bitan elkartzen gara eta bertan azkenaldian ikusi ditugun filmeen inguruan hitz egiten dugu.

Kurto berria iritsi dela eta elkartu eta aurreko ikasturteko eta udako zinemaren inguruan balorazioa egin dugu eta egia esan, oso positiboa gertatu da guretzat. Berezi udako zinema berreskuratzea pozgarria izan da eta hasieran urduri egon arren, Okendo plazara bueltatzea poza eman digu.

Datorren ikasturteari begira egutegi berria sortu eta filmen aukeraketa egiteaz aparte, ideia eta proposamen berriak ditugu kultur etxekoekin aztertzeko, oraindik zehaztu gabe dagoen arren txukuna izango dela aurreratu nuke. Izan ere, oso harreman ona dugu eta elkarlanean gustura gabiltza. Lan taldean aukeratzeko dira filmak eta gure ikusleak hauekin gozatzea dugu helburu.

Aipatu nahi nuke zine zale amorratu garen neurrian, iristear dagoen Donostiako Zinemaldia dela eta irrikan gaudela filma, dokumental eta bestelako klasikoak pantaila handian ikusi ahal izateko. Aukera paregabea da Zinemaldia, gomendagarria guztiz, izan ere nork daki, baina agian inoiz estreinatuko ez diren perlatxo batzuk bertan topatuko ditugu soilik. Noski, saiatuko gara ahalik eta filma gehien ikusten zer bait berezia topatu eta aukera egotekotan, herrira ekartzeko ere.

Animatu Zinemaldia aitzaki, gauza berriak ikustera eta bide batez, herrira ekartzeko ideia edo proposamenik badaukazue gure web orrira idazten!

Pantaila handiaren lilura

Donostiako Zinemaldia ostiralean hasiko da eta herriko zinema zaleek aukera izango dute nahi beste filmaz etxetik gertu ikusi eta gozatu ahal izateko.

Lasarte-Oriak badu zazpigarren artea deritzonarekin lotura berezia. Aipatzekoa noski Antonio Mercero herritarren lana zuzendari eta gidolari gisa. Batzuek gogoratuko dute nola Lasarte udalerrri ez zenean, Donostiako udalaren ekimenez Zinemaldiko hainbat film auzoetara eramaten zirenean, herriko bizilagun elkartearen lanari esker hauetako batzuk Lasarten bota ziren hainbatetan. Baina herrian bada zinema bultzatzen ahalegin berezia egiten duen herritar talde bizia, Okendo Zinema taldea. Zinema maite zuen lagun talde batek sortu zuen 80. hamarkadan eta etenaldi

baten ostean, oraindik martxan da urtero hainbat saio antolatuz. Taldeak harremana izan zuen Zinemaldiarekin bere hastapen urteetan eta kideek paseak izan zituzten nahi beste filma ikusi ahal izateko. Zinemaldian lehiatutako filmak egun bezala, hainbatetan ere ekarri zituen taldeak bere saioetara. Tedoso zinemaren itxieraren eman zitzaion bukaera taldearen lehen belaunaldiari baina une honetan lanean jarraitzen du eta Manuel Lekuona urtean zehar hainbat dira euren antolatutakoak.

Filmeek beste mundu batzuetan murgildu eta egunero koaz ahazteko gaitasuna dute. Zale amorratuentzat edo besterik gabe aisialdirako ekintza iruditzen zaionarentzat, egunotan aukera bikaina izango da Donostiara gerturatuta.

Hitz eta pitz

Zinemara joateko ohitura al daukazu?



Cecilio Esteban

Azkenaldian zinemara ez naiz joaten, egia esan aspaldi ez naizela joan. Badakit herrian bertan kultur etxean ikusteko aukera dagoela ez dela urrutira joan behar, Donostiara edo. Hori ondo dago, herrian bertan aukera izatea oso ondo iruditzen zait batez ere haurrek dituztenentzat eta gazte jendearentzat. Suposatzen dut horiek joango direla helduak baino gehiago.



Maria Luisa Miguel

Gustatzen zait zinea eta herrian kultur etxean egiten diren saioetara joan izan naiz baina bilobekin, haurren filmak ikustera batez ere azkenaldian. Oso ondo dago herrian bertan aukera izatea eta ahalik eta ekintza gehien antolatu hobeto. Ez soilik haurrentzat, uste dut haurrentzat nahikoa gauza egiten direla baina helduentzat ere gauzak egotea garrantzitsua iruditzen zait.



Pedro Otaño

Ez naiz zinemara joaten baina ondo iruditzen zait herrian aukera egotea... joan nahi duenarentzat. Telebistarekin nahikoa aukera daukagu, batez ere makal ibiltzen garenontzat da aproposa. Donostiako Zinemaldian ere ez naiz sekula izan. Gazteetan ez naiz egon eta orain gutxiago, hori oso zaleentzat direnentzat dela iruditzen zait niri.



Bego Tokero

Gustatzen zait baina haur txikiak ditut eta ez naiz asko joaten zinemara. Donostiako Zinemaldia ere joan izan naiz filmeak ikustera baina ez naiz bereziki zalea. Manuel Lekuona urtean zehar filmak ikusteko aukera izatea oso ondo dago, etxetik gertu dago eta ez zara Donostiara mugitu behar. Gainera filmak nahiko berriak ekarri dituzte azkenaldian eta eskertzen da.

Iruditan



Okendo zinema taldeak antolatutako Zinema astean Tedosoko teknikariak 1987an. Txema Vallés

Zinema denentzat

Tedoso zinema egun Manuel Lekuona kultur etxea kokatzen den lekuan zegoen. Hura izan zen herritar asko ezagutu zuten lehen pantaila handia. Ez zen arraroa sarrerak erosteko ilarak ikustea batez ere igandetan. Honek jaso zituen ere urte batzuetan Donostiako Zinemaldiko hainbat filma. Zinema jaialdiak auzoetara iritsi nahi izan zuen eta ekimen ezberdinak antolatu zituen horretarako. Horien baitan hainbat filma bota ziren auzo ezberdinetako aretoetan eta Lasartera ere iritsi ziren batzuk udalerrri izan gabe, lanean jardun zen bizilagunen elkarrekin eskatuta.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak

Lasarte-Oriako Udala
Euskara BatzordeaEUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILAGFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

SINDIKATUAK

Irailaren 26an greba orokorra egiteko deia luzatu zaie langileei

Politikariei jokabide publikoa errotik aldatzeko eskatzen diete ELA eta LABek Bankariei dirua "oparitu" eta herritarren eskubideak murrizten direla salatu dute

Greba orokorra proposatu du euskal gehiengo sindikalak hainbat eragile sozialekin batera hilaren 26rako eta arrazoiak jakinarazi zituzten ELA eta LAB sindikatuek aurreko astean. Egun horretan manifestazioa egingo da arratsaldeko 18:00etan Lasarte-Orian Gobiernuaren jokabidea eta langileriaren aurkako murrizketak salatzearekin batera Euskal Herriak hitza eta erabakia izan behar duela aldarrikatzeko.



ELA eta LABek ostegunean jakinarazi zituzten bakoitzak bere aldetik greba orokorra egiteko arrazoiak.

ELA eta LAB euskal sindikatuen ustez greba egiteko arrazoi ugari da eta horregatik aktiboki parte hartzeko eskatu diete langileei. Batez ere diru publikotik bankari 100.000 milioi euro "oparitu" zaiola salatu dute eta aldez herritarrentzat ez dela "miseria" besterik: murrizketak, erreformak, pribatizazioak, zerga igoerak eta soldata jaitsierak, besteak beste. Beraz politika publikoak errotik aldatzeko eskatuko dute irailaren 26an.

Sindikatuak nabarmendu dute azken hiru urteotan bosgarren greba orokorra dela, "hain denbora gutxian hainbeste greba ez da sekula egin Euskal Herrian" eta ELAko ordezkarien ustez, horren arrazoi nagusia da gaur egun poli-

tikariei langileekiko eta herritarrekiko ez dutela miresmenik. "Horren harira egiten dituzten politikak murrizketek jositako daude. BEZaren igoera, pentsioen erreforma eta beste murrizketak Europatik datoz. Bankuei dirua emateko zeini kenduko eta langileari, herritar xumeari, gaizki pasatzen ari denari kendu, aberatsei eta kapitalistei emateko".

Prentsaurreko bana

ELA eta LAB sindikatuek, bakoitzak bere aldetik, ostegunean Hernanin eman zituzten prentsaurrekoan gizartearen pobrezia daramaten erabakien zerrenda luzea ere aipatu zuten: langabeziaren prestazioak, menpeko pertsonenak eta pentsioak murriztu

nahi dituztela edo zerbitzu publikoetako langileen baldintzak okertzen ari direla.

ELAko ordezkariak konkretuki gazteen egoera zaila ere salatu zuten osteguneko prentsaurrekoan, lanpostuak bultzatuko dituzten politikak egin beharrean, erretiroaren adina luzatzen dutelako eta lanean hasteko garaian dauden gazteen aukerak zaildu.

Sindikatuaren ustez egoera irauli beharra dago. Politika guztiak kapitalaren mesedetarako diren bitartean, gero eta herritar gehiago dago ezintan larrarekin: gehien irabazten dutenek gehiago ordaindu dezatela. "Kapitalak ezin du dauzkan erraztasunik izan eta ezin dute hauek sortutako zuloak herritarrei leporatu.

Bankak egin duena iruzur handia izan da herriarentzako, baina espekulazioaren bidez egindako zulo izugarriaren kargu beraiek egin beharrean langileak egin dira".

Horregatik aldarrikatzen dute sindikatuek gaur egungo politikak aldatu arazteko borroka egin beharra eta, beraz, herritarrei mobilizaziotan parte hartzeko deia luzatu diete, larunbatean irailaren 22an egingo dira ekintza batzuk eta hilaren 26ko greba egunean, arratsaldeko 18:00etan egingo da Lasarte-Orian manifestazioa, LABeko Jon Martin ordezkariak jakinarazi duenez. Hernanin eta Andoainen ere egingo dira antzeko manifestazioak.

Komunikazioa Euskaraz saioak berriro martxan

Banaiz Bagara elkarteak antolatutako euskara klasetan parte hartzea zabalik da. Saioak ostegunetan 15:30etik 16:30era dira eta doakoak. Gainera ez da ezagutza mailarik eskatzen parte hartzeko.

Saioetan euskara era sinplean ikasten da, eguneroko egoeren aurrean euskaraz erantzun ahal izateko moduan. "Galdera erantzunen bitartez, eguneroko bizitzarekin zer ikusia duten esamoldeak ikasten ditugu", azpimarratzen du Petra Elser proiektuko arduradunak.

Saio hauek ere euskaraz ikasten ari diren haurren gurasoentzat zuzenduak daude, "oso lagungarriak izan daitez-

ke seme-alabek ikasketetan nagusia duten hizkuntza behintzat ezagutzeko". Ikas saioetan, euskal kulturak garrantzi berezia du eta euskal kantak eta dantzak lan-tzen dira, herriko jaietan parte hartuz eta topaketa kolektibok antolatuz. "Euskaldun eta euskaldun berrien arteko harremanak sortzea da helburua".

Taldeen beste ezaugarria parte hartzaileen jatorri desberdina da. "Kultur aniztasunean eragiten du eta horrek elkaren arteko bizitzan aberasten gaitu, munduko hainbat kultura eta hizkuntza batzen ditugu euskara lotura nagusia izanik". Taldeetan parte har-



tzea herrialde eta lurralde desberdinetako pertsonen zuzendua dago bereziki, halere edonork har dezake parte. "Euskara ikastera animatuko nuke jendea, jende berria eta mundu berria ezagutzeko".

Klaseak irekiak dira eta maila desberdinak antolatzen

dira ikasleen ezagutzaren araberak. Mota honetako taldeak zortzi herritan daude martxan eta Lasarte-Orian Ttakinekin egiten da elkarlanean.

Izena emateko ninaizgugara@gmail.com helbidean, Ttakinun edota 645 733 818 zenbakira deituta.

INGURUMENA

Mugikortasun astea dela eta ekintza bereziak

Udalak ekitaldi sorta antolatuko du Europa mailan egiten den Mugikortasun iraunkorraren astearekin bat egiteko.

Irailaren 18an eta 20an izango dira ekitaldi nagusiak Okendo Plazan. Bihar, 16:00etik 19:30era bizikleta festa egingo da, jolasak eta bizikletarekin martxak egingo dira eta irailaren 20an, 16:30tik 19:30a mugikortasun parkea antolatuko da. Honetan ezintasun fisiko desberdinen ikuspegitik prestatutako jolasak izango dira, ONCE-ren laguntzarekin prestatutakoak. Horretaz gain eta hiritar ororentzat Segway zirkuitua egin ahal izango da.

Bi arratsalde hauetan informazio karpa bat egongo da Okendon eta, besteak beste, hiribus zerbitzuaren inguruko informazioa emango dute.

PROTESTAK

Beltzez herriko osasun zentroan

Herriko anbulategiko langileak sektore publikoan ezarritako ari diren murrizketak salatuzko protesta eguna hautatu dute ostirala.

Uztailaren hasi ziren ostiralean beltzez jantzi lanean joaten eta horrela jarraitzeko asmoa dute Rajoiaren gobernuak sektore publikoan ezarri nahi dituen murrizketak salatuzko.

Herriko anbulategian jardun diren 34 langileek bat egin dute salaketarekin eta ostiralero beltzez jantzen dira lanera joateko. "Murrizketak onartezinak direla salatzen dute eta zerbitzu publikoetan murriztu, erabiltzaileek ondorioak pairatuko dituztela azpimarratu nahi dute.

GAZTE IKASTAROAK

Izena ematea ireki da

Gaurtik hasita eta irailaren 26ra arte izena eman daiteke udalako antolatutako Gazte ikastaroetan. Eskaintzen diren saioen artean besteak beste, argazkilaritza digitala, makillajea, batuka, txalaparta, sendabelarrak, freestyle dance daude.

Herrian errolatuta daudenentzat 25,30 eurotako kostua dute eta errolatuak ez daudenek, berriz, 44,60 euro ordaindu behar dituzte.

I z e n a - e m a t e a www.lasarteoriariasaren.eu gunean eta Gazte bulegoan egin daiteke.

Nely Carla Alberto Eskubaloi jokalaria

“Rio de Janeiroko Olinpiadan egotea espero dut”

■ Eskubaloian brontzezko domina eskuratu du, abuztuan, Londreseko olimpiar jokoetan ■ Frantziako ligan jokatzen ari da azken hiru denboraldiotan, irailetik Fleury taldean

Pozik dago Nely Carla Alberto eskubaloi jokalaria Londreseko Joko Olinpiadetan eskuratu duen brontzezko dominarekin. Azken zazpi urteotan Lasarte-Orian bizi da eskubaloi jokalaririk donostiarra, baina hain juxtu azken zazpi denboraldietan Bera-Bera taldeari kampa jokatzen du. Bost urtean izan zen Lizarrako Itxako taldean, bi urte eman ditu Normandiako Havre taldean eta aurretik Fleury jokatzen du, Frantziako ligan, Paris-etik hegoidera, ordu eta laudenera.

Jon ALTUNA IZA

Fred Bougeant entrenatzaile berberarekin segitzen duzu...
Bai azken bi urtean Havren izandako entrenadorearekin segituko dut.

Zer moduz Frantziako ligan? Adaketa handia izan al da?
Bai, hemen desberdin jokatzen dute, jaurtiketa eta jauritzaketa. EHF Kopa 2008-2009 denboraldian eta SuperKopa, Liga eta Kopa 2009-2010ean.

Havren bi urte egon zara, zein orotailaren daukazu?
Ez nuen erositzeko arazo handirik izan, nire aririk poliz benetrikola izan da eta hango zaleekin harremanetan segitzen Espainiako selekzioarekin.

Ongi etorri eta omenaldi asko jasotzen dituzte?
Lasarte-Orian jasotakoa oso polita izan zen, batez ere ez nuela espero.

Bi emakume Lasarte-Oriko punta-puntako kirolari...
Pozgarria izan da, Maialen Chourraut eta biok, Lasarte-Oriko herraririk brontzezko bi domina eskaintzeko aukera izatea.

Normaltasunera itzultzerik izan al duzu, orain, irailen?
Egia esan olinpiadetan domina lortzeko prentsa mailan bere eragina izaten du ondorengo egunetan, baina orain berri-berri itzuli eta gero, lan egitea da dago zure klubean gauzak lortu ahal izateko. Horretan dardigatu eta nahiaez, tsipa aldatu beharra dago.

Fleury talde berria al zara...
Bai, ni abuztu bukatutik ari naiz entrenatzen, baina taldeak ideak duela hitabele eta erdi urtean.

Egia esan, talde berri batean iristen, kosta egiten da egokitzen, baina nik ez dut arazo bat ere izan. Oso ondo hartu naute taldeko neskek. Talde berrian aritzea erakarri eta pizgarria ere bada.



Nely Carla Alberto Maialen Chourraut-ekin batera abuztuan (17an) jasotako hiritarrei omenaldi. Bi topelidunak postik ziren.

Lasarte-Orian jasotako omenaldia oso polita izan zen, batez ere ez nuelako espero. Gainera oso pozgarria da herritarrei brontzezko bi domina eskaintzeko aukera izatea

Maialen Chourrautekin egotarik izan al zenuen?
Ez bera beste toki batean eta Olinpiadearako lehen egunetan jardun zen.

Lehiaketa laburra izan zuten eta bizkor itzuli ziren.
Beti jokatu al duzu ezker hegalean?
Bai, orain arte bai. Kanpoan jokatu dudana urteotan entrenatzen dako, ezker aldean jartzen naiz.

Bera-Bera taldean hasi al zinen?
Bai, txikiatik jaxi goren-berria 11-12 urterekin hasi eta 16-17 urterekin taldearekin jokatzen nuen gorenngo mailan.

Lasarte-Orian jasotako omenaldia oso polita izan zen, batez ere ez nuelako espero.
Bai, mundu mailako lehiaketa izan zen, baina hori espero dut. Minik hartzen ez badut eta hautatzaileak deitzen segitzen banau... Oso polita da olinpiadetan parte hartzea, kirolari batenz goren, nazioarte eta mundu mailan jokatu daitekeen garrantzizkoena.

Zer moduzko giroa zen oro har Londreseko olinpiadetan?
Olinpiada ezagutzen zuten taldekiek esan ziguten zoragarria zela, baina bertan egon arte ez dugu sinesten. Beste kirolatiko selekzioekin giro oso ona egon da, balsegen postuetan nuen bakartza bote kontura ibiliko zela, baina ez, ligunatiko oso giro ona egon da, baina eta besteekin litz egin dugu, futsi orduko elkar-zaude zure kiroleko taldekiekin bakarrak, beste giroko bat sortzen da.



Elkarrizketa osoa txinarrri.info webgunean



Zaintzuz izan dira zure kirol ibilideko momentu onenak edo pozgarrienak?
Ez dakit zer esan. Esan dituzt gustuko dudun kirola egiteko suertea izan dudala, eta momenturik onenarik bat olinpiadetak azken partidua bizi hura izan da, sekula ez da eta 3. postua erabakitzeko horren norgehiagoka handirik eta zintzaririk jokatzen.

Eskubaloi zale ez direnek ere esan digute telebista lortu izan genituela bukatu-arte. Oso momentu berezia izan zen guretzat.

Eta penitsu al duzu sekula izaten? Momentu berririk izan al duzu?
Egia esanda, momentu txarrak pasa badituzt ere, sekula ez dut eskubaloiaren uzbeko asmo-rik izan.

Bizitza honetan ez da ezer erraza, eta zoritur edota ezberan horetik gaitunditu behar dago, emaitza zeren liskorri gogonargia izateko.
Gorabeherak izan dituzt, baina ingurukoekin laguntzarekin beti gaitunditu dituzt.

Lesio larriarik izan al duzu?
2009an trombosi bat izan nuen gihar biktetan, gero bir-keara igo zirendan eta zazpi hilabetean ez nuen jokatzaririk izan. Orduan gauza askotan konturatu nintzen, bizitzak ezusteko bat eman eta bizitza bera beste era batean ikusten dugu. Nik horri "eskerrak" mentalitate indartsua eta sakrifizioak gaitasun handia daukat. Eta hori nahitaz bizi-izan lagungarria da.



Asken urtean hantab garapen eskuratu ditu Nely Alberto-ek, Frantziako ligan ari da.

Momentu txarrak pasa badituzt ere, sekula ez dut eskubaloiaren uzbeko asmo-rik izan. Ingurukoekin babesarekin beti gaitunditu dituzt oztoko horetik

Epe motzera zein dira zure eronak?
Klub mailan nire esperientzia eskuratu ahal izateko eta selekzio mailan ere hobetzen eta dudan onena ematen segi, mundu mailara sailkatzen eta dominak lortzen jarraitzeko.

Epe luzera pentsatzen dut Rio de Janeiroko olinpiadak izango dituzalako gogoan...
Bai, garrantzitsua izango da guretzat, emaitza onak izan ditugu azkenaldion, baina ezin gara lasatu Olinpiadetan domina bat eskuratu dugulako. Pauso pauso segi behar dugu, hurrengo Europako Munduko edo olimpiar txapelketetan emaitzarik onenak lortzeko.

Epe luzean pentsatzen dut Rio de Janeiroko olinpiadak izango dituzalako gogoan...
Bai, garrantzitsua izango da guretzat, emaitza onak izan ditugu azkenaldion, baina ezin gara lasatu Olinpiadetan domina bat eskuratu dugulako. Pauso pauso segi behar dugu, hurrengo Europako Munduko edo olimpiar txapelketetan emaitzarik onenak lortzeko.

Oso polita da Olinpiadetan parte hartzea, kirolari batenz goren, nazioarte mailan jokatu daitekeen lehiaketa garrantzizkoena

ANIZIAK
JANTZI-DENDA
ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!
ETORRI IKUSTERA!
Kalle Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

FUTBOLA.

Erregionala sendotzea helburu

Ostadarrek berdinketarekin hasi du denboraldia Oñatin, Aloña Mendiren aurka bana eginda

Ostadar SKT-ko Erregional Ohorezko mailako taldea abuztuan hasi zen lanean. Hilabete eta erdiko aurrendenboraldian sei partida jokatu dituzte eta taldea fintzeko aukera izan dute. Asteburu honetan Aloña Mendiren aurkak jokatu dute maila honetan bere lehen partida. Mikel Martija entrenatzailearen helburua taldea maila honetan sendotzea da.

Ostadar SKT-ko Erregional mailako taldea atzo jokatu zuen Ohorezko mailako lehenengo partida. Maila berria da elkarre eta taldearentzat. Taldea maila honetan sendotzea da asmoa. Mikel Martija entrenatzailearekin egon gara solasean taldeari buruzko gauza gehiago jakiteko.

Aldaketak

Lehenik, erregional mailako talde teknikoan aldaketa txikia dagoela azaldu digu entrenatzaileak, "Asier Gorostegi ez dago bigarren entrenatzaile lanetan, Ibai Vazquez dago orain. Lan perfila betetzen du eta nire konfiantzazko pertsona da, nahiz eta ez duen lan hau aurretik egin".

Eta jokalarik aldaketak ere izan dituzte, baina "postuak ongi betetzeko aukera izan dugu. Taldea utzi edo kanpora joan direnen hutsa ongi bete dugu", azpimarratu du.

Aldaketa hauek direla ere, taldeak ildo berdina jarraitu duela azaldu digu Mikel Mar-

tijak, "entrenatzeko modua eta joko mota mantendu dugu".

Aurrendenboraldia

Abuztuaren 1ean hasi ziren lanean eta hilabete eta erdi honetan asteen, lau entrenamendu egin eta 6 partida jolastu ditu Erregional taldeak, maila desberdinetako taldeekin, Antiguoko, Berio, Zarautz, Lazkao, Tolosa eta Roteta.

"Egindako lana ikusi ahal izan genuen partida batzuetan. Sentsazio onak izan genituen gure mailan jokatuko duten taldeekin," aipatu digu.

Taldeak esperientzia falta

Eta hau puntu ona da. Izan ere, entrenatzailearen hitzetan, "maila aldaketa garrantzitsua da. Hirugarren maila bertan da".

Gainera, kontuan izan beharreko puntua aipatu digu, "Ostadarren esperientzia ez da maila honetan izan, ez dugu aurreko urteko erreferentziarik".



Ostadar SKT-ko Erregional Ohorezko mailako jokalariek gogor egingo dute lan maila berrian haien hoberena emateko.

Hala ere, "taldeko jokalarik batzuk bere futbol bizitzan maila ezagutzen dute eta nire jakin minak dela eta galderak egiten dizkiet. Haien ongi joango dela usate dute, baina badakit zailtasunak egongo direla".

Igoera eta jaitsiera

Gauzak honela, Erregional ohorezko mailako hemezortzi taldeetatik igoera zuzena bakarrik duela eta bigarrenak play off bat jokatu beharko lukeela azaldu digu. Era berean, saikapeneko azken lauk jaitsiko direla aipatu du.

Honela, Tolosa, Hernani eta Oiartzun aipatzen ditu

Martijak igoera postuetarako; Ostadar, berriz, ez du jaitsierako postuetan ikusten.

"Denboraldian zehar egin den lanarengatik, Ostadar jaitsieran ez egotea espero dut," aipatu du.

Emaitzek garrantziarik ez

Hala ere, taldea egoera horretan egongo balitz, ongi gaiturik lukeela adierazi digu Martijak.

Izan ere, emaitzak ez dira garrantzitsuak Erregional mailako entrenatzailearentzat. Taldea sendotzea eta ongi lantzea da eginkizun garrantzitsua.

"Ideia da taldean gauden

25 jokalariek eta bigarren taldekoek ilusioa eta gogoak izateko urte osoan," adierazi du.

Aurre egin

Era berean, taldearen erronka arerioek bere mailako elkarre aurkitzea dela aipatu digu Mikel Martijak.

"Badakigu mailari dago-kionez, pausu bat, bi edo behar direnak emango ditugula. Partidatan eskatzen digutena nari aurka egiteko gai izango gara uste dut, taldeak ilusio handia du", aipatu du.

Baina "horrek ez du ziurtatzen partidak irabaziko ditugunik," oharta arazten du.

PILOTA.

Gipuzkoako txapelketa hasi du Intzak

Gogo handiz ekin diote denboraldiari Intzako pilotariak.

Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldia jokatu zuten larunbatean Michelingo pilotalekuan, eta partidu bakarrean izan ezik, beste guztietan gailendu ziren lasarteoriarrak.

Abendura bitartean lehiatuko dira Intzako kadete, jubenil zein seniorrak, eta hurrengo faserako sailkatuz gero, onenen artean osaturiko koadro bidezko kanporaketek egin beharko diete aurre.

Kadeteak erraz

Partidu erosoak jokatu zuten II. mailako Intzako kadeteek

Hondarribiren aurka.

Aranbarri eta Sarasolak osaturiko bikoteak ez zuen arazorik izan txapelketako lehen garaipena eskuratzeko, 22-3.

Jubenilak txukun

Larunbata goizean eta arratsaldean jokatu zituzten Intzako jubenilek euren partiduak.

Alvarez eta Solanok osaturiko bikote lasarteoriarrak Gazteleku menperatu zuen Arrate pilotalekuan jokaturiko jubenilen II. mailako partiduan, Arruti eta Arberaz andoaindarrei 22-18 irabazita.

Esquetako arazoak tarteko, arratsaldean ez ziren fin ibili I. jubeniletan dabilzan Intzako pilotariak. Arteaga eta

Aranguren-ek osaturiko bikoteak Aurrera Saiatzeko Larrea eta Erasun bidaniarren aurka etsi behar izan zuen, 11-22.

Seniorrak argi, bizkor

Intzako pilotari helduenek (II. seniorra) ere garaipenarekin hasi zuten Gipuzkoako Txapelketa. Jon Pello Artetxe eta Xabi Arteagak osaturiko bikoteak mendean hartu zuen Elgoibarko Lagunak, erraz, 22-6 irabazita.

Agirrebeña eta Lizarralde nagusitasunez ekin zioten partiduari, 1-5 jarri ziren aurretik, baina lasarteoriarrak saka berreskuratu eta bote txikiko pilota jokoan jartzeaz bat, guztiz irauli zuten markagailua 22ra iritsi arte.



Intzako seniorrek pilota aldaketarekin asmatu zuten, hor egon zen partidua gako.

Agenda

Asteartea 18 eta osteguna 20, arratsaldea, Okendo plaza



Mugikortasun astea ospatuko da

Lasarte-Oriako Udaleko Ingurumena, Merkataritza eta Osasuna sailak mugikortasun astea antolatu du. Irailaren 18an, jolasak eta martxak antolatu dituzte, 16:00etatik 19:30era eta ostegunean, berriz, Mugikortasun Parkea izango da 16:30etik 19:30era. ONCE-ren laguntzaz, jolasak egingo dituzte ezintasun desberdinak kontuan izanik. Segway zirkuitua ere egingo da hiritar ororentzat. Informazio karpa bat ere egingo da.

herrikoa egingo da. Kontseiluak sustatutako ekimena.

Hernani

Jaia

KARABEL
Ostirala 22

Karabelen auzo eguna ospatuko dute.

Bestelakoa

ERDIALDEA
Ostirala 21-23

Mugikortasun Astea ospatuko dute. Haur eta nagusien entretenimendurako aktibitate zirkuitoak egingo dira.

Erakusketa

BITERI KULTUR ETXEA

Irailaren 28tik- Urriaren 11era

Argazki Rally digitalaren erakusketa ikusgai izango da.

Lasarte-Oria

Musika

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 21, 00:00etan

Sergio Cruz, Mora GS eta Daniel Knob dj-en emanaldia entzungai izango da.

Azoka

OKENDO PLAZA
Ostirala 21-Igandea 23

Erdi Aroko azokaz gozatzeko aukera

izango da plazan asteburu osoan zehar.

OKENDO PLAZA
Larunbata 29-Igandea 30

Beste urte batez, herriko Aterpea elkarteak Udalaren laguntzaz V. Stock eta Saldoen Azoka antolatuko du.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Iraila osoa

Jon Galdos artista irundarraren Amalorra margoen erakusketa eta hainbat olerki ikusgai dira.

Bestelakoa

EUSKOTREN
Larunbata 22, arratsaldean

Euskaraz bizi nahi dut martxa egingo da herriko kaleetatik zehar. Kontseiluak herriko hainbat elkarteekin antolatutako ekimena da.

Astigarraga

Bestelakoa

ERDIALDEA
Larunbata 22, 16:30ean

"Euskaraz bizi nahi dut" lasterketa

Usurbil

Ikastaroa

AGERIALDE
Larunbata 22, 09:30-14:00

Ogia egiteko ikastaroa antolatu du Usurbiltzenek. Izena ematea, 608 566 683 (Beñat).

Bestelakoa

OIARDO KIROLDEGIA
Larunbata 22, 16:30ean

"Euskaraz bizi nahi dut" lasterketa herrikoa egingo da.

Herritarren txokoa

Biyak Baten txangoa Jacara

Biyak Bat elkarteak txangoa antolatu du irailaren 21ean, Jacara.

Autobusa goizeko 8:00etan aterako da elkarte egoitzatik.

Santa Cruz de la Serós eliza erromanikoa eta San Juan de la Peña monastegia ezagutu ahalko dira txangoan.

Bazkal ostean, denbora libre izango da Jaca herria ezagutzeko.

Irteeraren prezioa 34 eurotakoa da bazkideentzat. Bazkide ez direnek orde, 38 euro ordaindu behar dituzte.

Margo eta marrazki ikastaroa

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaroko izen-ematea ireki du.

Interesa duten herritarrek gaur, bihar eta asteazkenean Iñigo de Loyola 12 behean elkarteak duen egoitzan izena eman dezakete.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, lau betaurreko gradua-

tuak, eguzkitako betaurrekoak, hiru mugikor, txandaleko jaka bat eta txirrina bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Alboka abesbatza martxan

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, 2012-2013 ikasturteari hasiera eman diola.

Era berean, abesteko interesa duen orori Zumaburuko Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalera, astelehena edo ostegunetan 20:00etatik 21:00etara, hurbiltzeko gonbita egingo die.

Hirigintza saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Sarean

Twitter euskaraz

2011. urteko otsailean hasi zen #Twittereuskaraz kanpaina eta milaka herritarren atxikipena izan zuen. Maiatzan zerbitzua euskaratzeko aukera ireki zuen Twitterrek eta hilabeteko lanaren ostean, aurtengo uztailetik interface-a euskarara itzuli daiteke.

Oraindik "beta" bertsioan dago, hau da, konpondu edo hobetzeko hainbat atal eta akatsa ditu baina erabilgarria da guztiz.

Honela, jatorrizko tweet hitza itzuli egin da eta tweet bezala ezagutzen genituen mezuak, txio bihurtu dira. Era berean, twitteatu ekingintza, txiokatu eta retweeatu, bertxiotu izango dira hemendik aurrera.

Twitterra euskaratu nahi dutenek honako pausu hauek jarraitu behar dituzte:

1.- Configuración/Settings atalera joan. Horretarako goian ezkerrean dagoen zurizko "pertsona" klikatu.

2.- Idioma/Language atala bilatu eta "Basque-Euskara (beta)" hautatu.

3.- Orriaren behealdean ageri den Guardar cambios/Save changes botoia klikatu eta zure kontuaren pasahitza ezarri. Aldaketa osatzeko, beharrezkoa da zure pasahitza jartzea.

Honela, twitterra euskaraz erabiltzen hasi eta zuen txioak bidali ahalko dituzue.

Era berean, gogoratu herriko berri guztiak Txintxarriko twitterrean (@txintxarri) aurkitu ditzakezuela.



Euskara ikasteko aukera

2012-2013

Diru-laguntzak

% 40 - % 75

Edozein lasarteoriatarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

ona eta merkea

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Be ko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 3tik 18ra

Muntteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aek.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 30era

Informazio gehiago

- Udaleko euskarako zerbitzuan:
- Helbidea: Kale Nagusia 22
 - Telefonoa: 943 376 184
 - e-maila: euskara@lasarte-oria.org

Euskara
Batzordea
LASARTE-ORIA




LASARTE-ORIAKO UDALA

euskararen 8. maratoia

bihotzetik plazara

Parte hartu Maratoian!!



33 egun
falta dira

www.euskararenmaratoia.com

Lasarte-Oria 2012ko urriaren 20a eta 21a

